

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000001084

Espediente-zenbakia: 2020/KON_TXI_0130**Xedea****Ozono makinaren hornidura kontratua esleitzea onartzea.****Aurrekariak**

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauden egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Hirugarrena: 2020ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, COVID-19ak sortutako osasun egoera kudeatzeko, Lehendakariaren martxoaren 13ko 6/2020 Dekretuaren eta Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz, emergentzia egoera aldarrikatzea erabagi zan, onartutako Alarma Egoerak iraun bitarteko eraginagaz.

Laugarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko, beharrezkoa da, emergentziaz, ozono makinaren hornidura kontratatzea.

Argudioak

Lehenengoa: 2020ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez aldarrikatutako Emergentzia egoerak, besteak beste, kontratazinoan dauka eragina, beti be COVID-19ak sortutako egoeragaz lotura zuzena daukeen kasuetan.

Eta esleipen honeguz, COVID-19ak sortutako egoerari aurre egiteko, langileen gutxienezko osasun baldintzak bermatzeko Zerbitzu saila eta Udaltzaingoa ibilgailuak eta udal instalazioak (aldagelak, komunak eta blegoak) eguneroko erabilera egin ondoren desinfektatzeko behar-beharrezkoa diran ozono makinaren hornidura kontratatu gura da.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 120. artikulua araberak, emergentzia egoera beharrezkoak diran kontratazinoak egin ahal izateko, ez da beharrezkoa kontratazino espedientea izapidetzea, ezta kreditu nahikoa izatea.

**Sinadurea eta data**

Eta kontratuaren exekuzinoa hasteko epea, ezingo dau izan hilabete baino handiagoa.

Hirugarrena: Esleipena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erakundeen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.m artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, kontratua esleitzeko ahalmena alkateari jagoko.

Erabakia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta honako hau erabaki dot:

LEHENENGOA: Ozono makinaren hornidura kontratua, emergentziaz, B20793436 IFZ zenbakidun Servicios y Logistica de Rescate SL enpreseari esleitzea, 1.740,00 eurotan BEZaz kanpo, (BEZari jagokon zenbatekoa: 365,40€ DANATARA: 2.105,40€), 2020 urterako eta esleipendunak aurkeztutako proposamenagaz bat.

BIGARRENA: 2.105,40 eurotako gastua lotzea Aurrekontuko 00600-92040-6230103 partidan, 2020 urterako.

HIRUGARRENA: Esleipendunari kontratua berehala exekutatzeko agindua emotea eta, ohartarazotea, kontratuaren exekuzinoa erabagi honen jakinarazpena jaso eta gehienezko hilabeteko epean hasiko ez baleu, esleipena bertan behera geratuko dala.

LAUGARRENA: Esleipendunari, lehiatzaileari, kontu hartzaileari eta diruzainari erabagia jakinarazotea eta kontratugilearen profilean argitaratzea.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

Alarma egoera dela eta, erabaki honek eragina izango du apirilaren 1eko 2020/907 Alkatezta Dekretuaren arabera eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarriaren arabera.

Debido al estado de alarma, esta resolución tiene los efectos contemplados en el Decreto de Alcaldía 2020/907 de 1 de abril y en la Disposición Adicional 3ª del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo.

Oharra: sinadurea eta datea orri-oinean .

**Sinadurea eta data**